# TOKIKO GOBERNU BATZARRA

**2025.11.25**

Jarduneko alkatea:
Ander Figuerido Zubiria

Bertaratutako zinegotziak:
Cristina Pelaez Errazquin
Aitor Aguirresarobe Murgui
Miren Yosune Sanz Vidal

Ez dira bertaratu:
Goiuri Eceiza Arandia

Udal idazkaria:
Sara Berasategui Fuertes

Kontu-hartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko azaroaren hogeita bostean, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu jarduneko alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

1. Akta hau onartzea:

   2025eko azaroaren 18koa.

2. Onartzea, hala badakio, «4. Guadalupe-Donostia etorbidea» esparruko «4.2 autobiako irla» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketa. Behin betiko onespena ematea.

3. Onartzea, hala badagokio, GFAaren eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmena Mugi sistema duen garraio publikoa sustatzeko eta mugikortasun arloan lankidetzan aritzeko.

4. Onartzea, hala badagokio, araubide bereziko udal etxebizitza tasatuen behin betiko kalifikazioa ematea, Tolosako Iurramendi eremuko a.20.1-2/24.1 partzelako eraikinetan kokatutako 27 etxebizitza, garaje eta trastelekuei; I eranskinean zehazten diren zehaztapen eta gehieneko salmenta prezioekin.

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

5. **Onartzea, hala badagokio, araubide orokorreko udal etxebizitza tasatuen behin betiko kalifikazioa ematea Tolosako Iurramendi eremuko a.20.1-2/24.1 partzelako eraikinetan kokatutako 13 etxebizitza, garaje eta trastelekuei; I eranskinean zehazten diren zehaztapen eta gehieneko salmenta prezioekin.**

1. **AKTA HAU ONARTZEA: 2025EKO AZAROAREN 18KOA.**

Jarduneko alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.

2. **ONARTZEA, HALA BADAKIO, «4. GUADALUPE-DONOSTIA ETORBIDEA» ESPARRUKO «4.2 AUTOBIAKO IRLA» AZPIESPARRUKO BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUAREN LEHEN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA.**

**I K U S I R I K**

LEHENA.- Tolosako HAPOko ≪4.2 Autobiako Irla≫ azpiesparruko Kontzertazio Hitzarmena behin betikoz onartu zela 2011ko apirilaren 19an. (B.5.1./2011/0005 espedientea).

BIGARRENA.- Tolosako HAPOko ≪4.2 Autobiako Irla≫ azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Testu Bategina behin betikoz onartu zela 2012ko irailaren 25ean. (B.5.1./2012/0001 espedientea).

HIRUGARRENA.- ≪4. Guadalupe-Donostia etorbidea≫ esparruko ≪4.2 Autobiako Irla≫ azpiesparruko **birpartzelazio-proiektua**ren espedienteari (B.5.1./4.2/2012/0002 espediente zk.) dagozkion **aurrekariak**:

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko urriaren 31n, behin betiko onespena eman zion ≪4.2 Autobiako Irla≫ azpiesparruko birpartzelazio-proiektuari eta, 2012ko azaroaren 9ko 214 zenbakidun GAOn eman zen argitara.
Proiektuak bide administratiboan irmotasuna jaso ondoren, Tolosako Jabetza Erregistroan aurkeztu zen. Jabetza Erregistroak, ordea, hainbat zuzenketa egin zizkion birpartzelazio-proiektuari. Zuzenketa horiek birpartzelazio-proiektuan jasotzeko asmoarekin, Autobiako Irla eremuko Exekuzio Unitateko Konpentsazio Batzordeak Jabego Erregistroarekin hitzartutako zuzenketak biltzen zituen dokumentu osagarria aurkeztu zuen 2013ko urtarrilaren 25ean. Dokumentu horretan azaltzen zenez, zuzenketak honako hauei eragiten zieten: F ekarritako partzela eta 1, 2 eta 5. ondoriozko lurzatiak.
Ikusita dokumentuari buruz hirigintzako teknikariak idatzitako txostena, non zehaztu zen aipatutako zuzenketak ez zirela funtsezkoak, baizik eta zuzenketa aritmetikoak eta zehaztapenak; eta, Hirigintza Batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Tokiko Gobernu Batzordeak, 2013ko otsailaren 15ean, erabaki zuen ontzat ematea ≪4.2 Autobiako Irla≫ azpiesparruko birpartzelazio proiektuaren zuzenketa osagarria eta zuzenketa horren gainean Idazkariak egindako ziurtagiria Tolosako Jabetza Erregistroan aurkeztea.

LAUGARRENA.- Tolosako HAPOko ≪4.2 Autobiako Irla≫ azpiesparruko Urbanizazio Proiektuaren Testu Bategina behin betikoz onartu zela 2013ko abenduaren 20an. (B.5.1./2012/0014 espedientea).

BOSGARRENA.- ≪4. Guadalupe-Donostia etorbidea≫ esparruko ≪4.2 Autobiako Irla≫ azpiesparruko **xehetasun-azterlana**ren espedienteari (2023H1070002 espediente zk.) dagozkion **aurrekariak**:

Tolosako Udalbatzak, 2024ko azaroaren 28n, egindako Ohiko Osoko Bilkuran, behin betiko onespena eman zion ≪4. Guadalupe-Donostia etorbidea≫ esparruko, ≪B.10 Industria Erabilerako Zona≫, ≪4.2 Autobiako Irla≫ azpiesparruko xehetasun-azterlan proiektuari, 2024ko martxoaren 21ean aurkeztutako bertsioa eta 2024ko irailaren 12an aurkeztutako dokumentazio osagarriari, honako baldintzak kontuan izanda:

≪15 eguneko epean 2024ko martxoaren 21ean aurkeztutako Xehetasun Azterlana eta 2024ko irailaren 12an aurkeztutako dokumentazio osagarria bateratzen dituen Xehetasun Azterlanaren Testu Bategina aurkeztu beharko da.
Espedienteko txosten sektorialetan jasotako baldintzak bete beharko dira uneoro (Ur agentzia eta Kantauriko konfederazio Hidrografikokoak, GFAko Errepide Sailekoak eta Gipuzkoako Uraken txostenetan jasotakoak).≫

Era berean ohartarazi zen honakoak ere kontuan izan behar zirela azpiesparru honetako ondorengo espedienteak izapidetzerakoan:

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

≪**2012ko urriaren 31ean behin betiko onartu zen Birpartzelazio Proiektuaren aldaketa izapidetu beharko da antolamendu xehatuaren aldaketak egokitzeko**.
Eraikuntza proiektuan eta obran derrigorrez bete beharko da zehaztutako profila (sotoa+erdisotoa+II) eta sestrapeko eta sestra gaineko gehieneko eraikigarritasuna ezingo da inolaz ere gainditu.
Eraikuntza proiektuan eta obran bete beharko dira, besteak beste, Urbanizazio, eraikuntza, eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko udal ordenantzetako 91, 92, 98 eta 99 artikuluak aparkalekuei eta zamalanetako espazioei dagokienez.≫

Behin betiko onarpenaren erabakia 2025eko urtarrilaren 27ko 16 zenbakidun GAOn eman zen argitara, baita, zabalkunde handiena duten egunkarietan ere.

SEIGARRENA.- 2025eko ekainaren 4an, Burpe Obras SL enpresak, Felix Perurena Goizuetak ordezkatuta, Tolosako Udalean erregistro elektroniko bitartez (2025-7916/17 sarrera zenbakia) ≪*1ª Modificación puntual del proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución “4.2 Isla Autovía” de Tolosa (parcela 5 y entorno)*≫ izeneko dokumentua aurkeztu zuela hasierako onespenerako.

ZAZPIGARRENA.- 2025eko abuztuaren 12an, hirigintzako tekniko juridikoak txostena egin zuela ondorioztatuz hasierako onespena ez ematea hilabeteko epean planoak aurkeztu bitartean. Hala, 2025eko abuztuaren 13an, interesdunari errekerimendua bidali zitzaiola.

ZORTZIGARRENA.- 2025eko irailaren 8an, Burpe Obras SL enpresak, Felix Perurena Goizuetak ordezkatuta, Tolosako Udalean erregistro elektroniko bitartez (2025-11670 sarrera zenbakia) errekeritutako planoak aurkeztu zituela hasierako onespenerako.
BEDERATZIGARRENA.- 2025eko irailaren 19an, hirigintzako tekniko juridikoak hasierako onespena ematearen aldeko txostena (MAU25130) egin zuela.

HAMARGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko irailaren 30ean egindako bilkuran, besteak beste, erabaki zuela hasierako onespena ematea honako honi: 2025eko ekainaren 4an, Burpe Obras SL enpresak, Felix Perurena Goizuetak ordezkatuta, Tolosako Udalean erregistro elektroniko bitartez (2025-7916/17 sarrera zenbakia) aurkeztutako ≪*1ª Modificación puntual del proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución “4.2 Isla Autovía” de Tolosa (parcela 5 y entorno)*≫ izeneko dokumentuari eta, 2025eko irailaren 8an (2025-11670 sarrera zenbakia) aurkeztutako birpartzelazio-proiektuaren aldaketaren planoei.

Hala, 2025eko urriaren 10ean (irteera zk.: 2025-2532), erabakia interesdunari jakinarazi zitzaiola.

HAMAIKAGARRENA.- Birpartzelazio-proiektuaren aldaketa jendaurrean jarri zela:

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean: 2025/10/10 (194 zk.)
Udaletxeko iragarki-oholean: 2025/10/10 – 2025/11/10
Udaletxeko web orrian: 2025/10/10
Aldizkarietan (El Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Ataria): 2025/10/14

HAMABIGARRENA.- 2025eko azaroaren 10ean, informazio publikoaren amaiera eman zela eta, hurrengo egunean, hirigintzako tekniko juridikoak jendaurrekoari buruzko txostena (MAU25166) egin zuela; adieraziz ez zela alegaziorik jaso. Eta, 2025eko azaroaren 17an, udaleko idazkariak txosten horretan oinarrituriko ziurtagiria egin zuela.

## KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.
BIGARRENA.- Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dutela:

A) Estatuko legeria:
- Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30ekoa 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 4.2, 5.d eta e, 7, 13.2.c eta 14.c, 18, 25 eta V. Titulua (34-41 artk.).
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j), 70.ter1 eta 127.1.d) artikuluak.
- Jabetza Erregistroan hirigintza-egintzak inskribatzeari buruzko den uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuko 6. artikulutik 20. artikulura.
- *Ordezko gisa*:
- Lurraren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuaren 97. artikulutik 102. artikulura.
- Hirigintza kudeaketaren erregelamenduko (azaroaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretua) 172. artikulutik 174. artikulura.
- Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretua.

B) Euskal Autonomia Erkidegoko legeria:
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 42. artikulutik 49. artikulura eta 163. artikulua.

HIRUGARRENA.- 2025eko irailaren 8an, Burpe Obras SL enpresak, Felix Perurena Goizuetak ordezkatuta, Tolosako Udalean erregistro elektroniko bitartez aurkeztutako honako planoak: kokapen-planoa, ekarritako lurzatien-planoa, antolamendu-planoa, ondoriozko lurzatien-planoa eta gainjarritakoen-planoa.

LAUGARRENA.- 2025eko irailaren 8an, Burpe Obras SL enpresak, Felix Perurena

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

Goizuetak ordezkatuta, Tolosako Udalean erregistro elektroniko bitartez (2025-11670 sarrera zenbakia) aurkeztutako planoen inguruan egin zen azterketa juridikoa (*MAU25130*), ontzat emanez aurkeztutako planoak eta betetzat egindako errekerimendua.

BOSGARRENA.- Hasierako onespen-erabakiaren ondoren irekitako jendaurrekoan ez dela alegaziorik aurkeztu, eta 2025H118001 espedientearen izapidetza aplikagarri den araudiarekin bat etorrita izapidetu dela.

SEIGARRENA.- ≪4. Guadalupe-Donostia etorbidea≫ esparruko ≪4.2. Autobiako Irla≫ azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketa behin betikoz onesteko eskumena Alkateari dagokiola, hirigintza-kudeaketako egintza den heinean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Tolosako Udalari dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaiola 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuz. Hortaz, organo horri dagokiola behin betiko onespena ematea.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta jarduneko alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**LEHENA.-** BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA 2025eko ekainaren 4an, Burpe Obras SL enpresak, Felix Perurena Goizuetak ordezkatuta, Tolosako Udalean erregistro elektroniko bitartez (2025-7916/17 sarrera zenbakia) aurkeztutako ≪*1ª Modificación puntual del proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución "4.2 Isla Autovía" de Tolosa (parcela 5 y entorno)*≫ izeneko dokumentuari eta, 2025eko irailaren 8an (2025-11670 sarrera zenbakia) aurkeztutako birpartzelazio-proiektuaren aldaketaren planoei.

**BIGARRENA.-** Behin betiko onespen erabakia hau, hasierako onespena argitaratu zen eran argitaratzea.

**HIRUGARRENA.-** Erabakia interesdunei jakinaraztea eta berri ematea udaleko Kontu-Hartzailetza eta Diruzaintza sailari.

**LAUGARRENA.-** Behin administrazio bidean irmoa denean, birpartzelazio-proiektua formalizatzea [interesdunaren kargurako eskritura publikoaren bidez edo abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren bidez onartutako Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduaren 113.1 artikuluan xedatutako solemnitateak eta baldintzak biltzen dituen administrazio-dokumentuaren bidez] eta, behin formalizatu ondoren, Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatzea.

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

**BOSGARRENA.-** Jabetza Erregistroan inskribatu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundian Hirigintzako eskumena duen Departamenduari zein Ogasun eta Finantza Departamenduari jakinaraztea.

**3. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, GFAAREN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA MUGI SISTEMA DUEN GARRAIO PUBLIKOA SUSTATZEKO ETA MUGIKORTASUN ARLOAN LANKIDETZAN ARITZEKO.**

**I K U S I R I K**

**LEHENA.-** Tolosako Udaleko erregistroan, 2025eko uztailaren 23an , 2025-10264 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko , Turismoko eta Lurralde Antolaketako sailak “Mugi hitzarmena “ zirriborroari sarrera eman zion, MUGI sisteman integraturik gauden Udalerriak GFA-ko sail honetako dirulaguntzak jasotzeko aukera izan dezagun

**K O N T U A N   H A R T U R I K**

**LEHENA.-** 2025eko irailaren 23an, imgurumen eta landa eremuko teknikariak egindako txostenean (AR20250039), besteak beste, honakoa jaso zen:

| **AZTERKETA TEKNIKOA** |
|---|

**A. Hitzarmenaren helburua.**

- Hitzarmen honen xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako udalaren arteko lankidetza esparru bat xedatzea, horrela laguntzeko Lurralde Historikoko biztanleen mugikortasunerako funtsezko eskubidea bermatzen, baita bi erakundeen helburu komunak betetzen ere, alegia, mugikortasun jasangarriaren jarraibide berri eta urgenteei erantzuten, garraio publikoa hobetzen, eta erakunde bien garraio publikoaren Tolosako kudeaketarako baliabideak optimizatzen, eta lanean jarraitzea tarifa sistema bateratu baten (MUGI sistemaren bidez) ikuspegi partekatua laguntzeko eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan (GGLA) parte hartzeko ekintzetan.

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

- Hitzarmen honen helburu nagusietako bat da Foru Aldundiak dirulaguntza lerro bat ezartzea, udalerrian kapilaritatea garatzeko eta hobetzeko aukerak dituen garraio publikoa —tarifa sistema bateratuaren baitan— laguntzen duten udalerri hauetarako, horrela sustatzeko hirien arteko konektagarritasuna eta irisgarritasun unibertsala, bertako herritarren hiriko desplazamenduetako hurbiltasun patroiekin, herriaren hiri garraio publikoko zerbitzuaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko jarduketak, hiriko garraio publiko horren gabeziei aurre egiten laguntzeko, baita herriak garatzen dituen hiri mugikortasun jasangarriko planak garatzearen inguruko ekintza eta programak ere.

**B. Hitzarmena sinatzeko eskumena**

- Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumena du bere lurraldearen barruko mugikortasunaren eta errepideko garraiobide mekanikoen arloan, honako arau hauetan xedatutakoaren arabera: Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluan; Autonomia Erkidego Osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 10. artikuluan; garraio-arloko eskumenak eskuordetzeari buruzko uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoan; eta martxoaren 5eko 46/1985 Dekretuan eta martxoaren 5eko 30/1985 Foru Dekretuan ,biak lurreko garraioen arloan Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen zerbitzuak Gipuzkoako Lurralde Historikoari eskualdatzeari buruzkoak.

- Tolosako Udalak, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeriaren arabera, trafikoaren, ibilgailuak aparkatzearen, mugikortasunaren eta hiri-garraio kolektiboaren arloko eskumenak betetzen ditu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2. g) artikuluan ezarritakoaren arabera. Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 17.1.32 artikuluan aurreikusten duenez, udalerriek eskumen propioak baliatu ahal izango dituzte honako esparru material hauetan: “Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu —motordun zein bestelako— eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko iritzitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte”

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

### C. Hitzarmenaren edukia

Hitzarmen honek 3 klausula ditu.

- **Lehenengo klausulak** helburuak finkatzen du. Helburu nagusia da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako udalaren arteko lankidetza esparru bat xedatzea, horrela laguntzeko Lurralde Historikoko biztanleen mugikortasunerako funtsezko eskubidea bermatzen, baita bi erakundeen helburu komunak betetzen ere.

Beste helburu nagusietako da Foru Aldundiak dirulaguntza lerro bat ezartzea, udalerrian kapilaritatea garatzeko eta hobetzeko aukerak dituen garraio publikoa —tarifa sistema bateratuaren baitan— laguntzen duten udalerri hauetarako.

Klausula honetan hitzarmenaren xedea ere aipatzen da, hain zuzen ere, lankidetzako eta laguntzako tresnak ezartzea erakunde bien artean, Tolosako udalerriko zerbitzuaren kudeaketa partekatua hobetzeko, eta datuak ematea eta trukatzea, guztia ere lurraldeko mugikortasun jasangarriko planetako ekintzak eta programak burutzeko.

- **Bigarren klausulak** dirulaguntzaren zenbatekoa zehazten du. Foru Aldundiak Tolosako Udalari zuzendutako laguntza dirulaguntza zuzena izango da, urtean 54.733,00 euro artekoa.

Dirulaguntza erabiliko da herriko hiri garraio publikoko zerbitzuaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzera bideratutako jarduketetarako, hiri garraio publikoaren defizitari aurre egitera, eragiketa kudeaketara eta herrian mugikortasun jasangarriaren inguruko ekintzak eta programak burutzera Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) baitan, bereziki 11. helburuaren baitan *(«Hiri eta komunitate jasangarriak»*).

Klausula honetan zehazten da Tolosako udalak Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 13. artikuluan adierazten diren betebehar guztiak bete beharko dituela.

Tolosako udalak dirulaguntza jasotzearen truke hiri garraio publikoaren diagnostikoari, erabilerari eta bilakaerari buruzko urteko memoria bat egingo du, hiri garraio publikoa sustatzen duela justifikatzeko.

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

Memoria horretan zehaztuko dira sistemaren ezaugarriak, erabilgarri dauden hiri lineen deskribapena eta linea bakoitzak lanegun, larunbat, igande eta gauetan duen erabilera, baita zabaltzeko edo berrantolatzeko aurreikusten dituzten proiektuak ere. Halaber, aztertuko dira hiri garraio publikoko sistemak herriko beste garraio sistema batzuekin interkonektatzeko duen gaitasuna

- **Hirugarren klausula. Indarraldia eta Iraupena.**

Lankidetza-hitzarmen hau, sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. Gogoratzen da hitzarmen hau indarrean sartuko dela

Lankidetza-hitzarmen honek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h) artikuluaren lehenengo atalean xedatutakoaren arabera, **urte beteko indarraldia izango du**.

Hitzarmen hau aldez aurretik suntsiarazi ahal izango da alderdi sinatzaile guztiek aho batez hala adostuz gero, hitzarmenaren xede diren jarduketak bete ondoren, edo, 40/2015 Legearen 51. artikuluko bigarren apartatuan ezarritakoaren arabera, hitzarmena suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean.

### D. Hitzarmenaren ondorioak

- Hitzarmen honen helburua orokorra ondorengoa da: tarifa sistema bateratua (mugi sistema) duten erakundeen artean garraio publikoa sustatzea eta mugikortasunaren arloan lankidetzan aritzea.

- Hitzarmen honen helburu nagusietako bat da Foru Aldundiak dirulaguntza lerro bat ezartzea, udalerrian kapilaritatea garatzeko eta hobetzeko aukerak dituen garraio publikoa —tarifa sistema bateratuaren baitan— laguntzen duten udalerri hauetarako.

- Onartzea eta sinatzea proposatzen den hitzarmen honetan, Tolosako udalak hartzen duen konpromisoa da:

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak ezarritako betetzea.
- Hiri garraio publikoaren diagnostikoari, erabilerari eta bilakaerari buruzko urteko memoria bat egitea, hiri garraio publikoa sustatzen duela justifikatzeko.

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

- Hitzarmen honek ez du udalarentzat konpromiso ekonomikorik eragiten. Alderantziz, dirulaguntza lerro berri batean parte hartzeko aukera irekitzen zaio.

**BIGARRENA.-** 2025eko urriaren 20an, idazkaritza saileko administrazio orokorreko teknikariak egindako txostenean, besteak beste, honakoa jaso zen:

| **TXOSTEN JURIDIKOA** |
|---|

*LEHENA***.** Prozedura honetan ondorengo **araudia** da aplikatu beharrekoa:

1. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (aurrerantzean 7/1985 Legea).
2. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa (aurrerantzean 19/2013 Legea).
3. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (aurrerantzean 39/2015 Legea).
4. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena (aurrerantzean 40/2015 Legea).
5. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena (aurrerantzean 2/2016 Legea).
6. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (aurrerantzean 9/2017 Legea).

*BIGARRENA.* 7/1985 Legearen 55. artikuluak, Estatu eta Autonomia Erkidegoetako administrazioen eta **Toki Entitateetako administrazioen arteko koordinazioa eraginkorra** izateko bete beharreko baldintzak ezartzen ditu:

"*Administrazioen arteko koordinazioa benetakoa eta administrazioa eraginkorra izateko, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazioek alde batetik, eta toki-erakundeek bestetik,* ***elkarren arteko harremanetan, hau egin behar dute****:*

*a) Gainerako administrazioek beren eskumenak zuzenbidearen arabera erabiltzea eta horrek bakoitzari ekar liezazkiokeen ondorioak errespetatu.*

*b) Ongi neurtu, norberaren eskumenak baliatzerakoan, ukitutako interes publiko guztiak, eta, zehazki, gainerako administrazioei kudeatzeko gomendioan emandakoak.*

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

*c) Gainerako administrazioei beren kudeaketaren gainean, administrazioek beren eginkizunak egoki gara ditzaten, garrantzizkoa den informazioa eman.*

*d) Norberaren eremuan lankidetza eta laguntza aktiboak eman gainerako administrazioei, beren eginkizunak modu eraginkorrean betetzeko behar dituztenean*".

Lege berdinaren 57. artikuluak Administrazioen arteko lankidetza arautzen du, hitzarmenak honetarako aukera bezala izendatuz:

"*Toki-administrazioaren eta Estatuko eta autonomia erkidegoetako administrazioen arteko ekonomia, teknika eta administrazioko arloetako* ***lankidetza****, bai toki-zerbitzuetan bai guztien intereseko gaietan, borondatez burutuko da, legeetan ohartemandako moduan eta erara; nolanahi ere, izenpetu ditzaten administrazio-mailako partzuergo edo* ***hitzarmenen bidez ere burutu daiteke***".

Honen ildotik doa 39/2015 Legearen 86.1 artikuluak xedatutakoa ere:

"*1.* ***Administrazio publikoek*** *akordioak, itunak,* ***hitzarmenak*** *eta kontratuak* ***egin ditzakete zuzenbide publikoko zein pribatuko pertsonekin****, baldin eta ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira, transakziorik onartzen ez duten kontuen gainekoak ez badira, eta babestu behar duten interes publikoari erantzutea badute xede; betiere, kontuan izango dituzte prozedura arautzen duen xedapenean ezarritako irismena, ondorioak eta araubide juridiko espezifikoa. Egintza horiek administrazio-prozedura amaitzen dutela jo daiteke edo bestela prozeduran sartu, aurretiko moduan, prozedura amaitzen duen ebazpena baino lehen, lotesle gisa edo ez*".

*HIRUGARRENA*.7/1985 Legearen 2. artikuluak aitortzen die **udalerriei**, besteak beste, eurengan zuzenean eragiten duten gaietan **esku hartzeko eskubidea**:

"*1. - Konstituzioak toki-erakundeei bermatzen dien autonomia eraginkorra izan dadin, Konstituzioak ezarritako eskumen-banaketaren arabera herri-ekintzako arloak arautzen dituzten Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legediek* ***ziurtatu*** *beharko diete* ***udalerri****, probintzia eta uharteei beren interesen esparruari* ***zuzenean eragiten dioten gai guztietan esku hartzeko eskubidea****, eta kasuan kasuko herri-jardueraren ezaugarrien araberako eta toki-erakundearen kudeaketa-gaitasunaren araberako eskumenak eman, deszentralizazioa eta administrazio-kudeaketa herritarrei ahalik eta gehien hurbiltzea printzipiotzat hartuta*".

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

Lege bereko 5. artikuluak gaitasun juridikoa aitortzen die toki-erakundeei euren esparruan ondorengo ekintzak burutzeko:

"*Toki-erakundeek beren xedeak betetzeko eta zeinek bere eskumenen esparruan, Konstituzioarekin eta legeekin bat, gaitasun juridiko osoa izango dute ondasun-mota guztiak eskuratu, eduki, galdatu, trukatu, kargatu nahiz besterentzeko, kontratuak egiteko, herri-lan zein herri-zerbitzuak ezarri eta ustiatzeko, betebeharrak hartzeko, ezarritako errekurtsoak jartzeko eta legeetan aurreikusitako akzioez baliatzeko*".

Tolosako Udalari dagokionean, eta 7/1985 Legearen 21.1.s) artikuluari jarraiki, hirigintza-hitzarmenak onartzeko eskumena Alkatearena izango da:

"*s) Legeek berariaz aitortzen dizkioten gainerakoak, eta Estatuko legediak edota autonomia erkidegoetakoak udalerriari esleitutakoak izanik udaleko beste organo batzuei egotzi ez dizkietenak*".

Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023-1707 Alkatetza Dekretuak, lankidetza-hitzarmenak sinatzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio, betiere 9/2017 eta 38/2003 Legeen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen bada:

"*5. Lankidetza-hitzarmenak:*

*Beste administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin* ***lankidetza-hitzarmenak onartzea****, ondoko legeen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direnak: 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituena, 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, eta horiek garatzeko arauak*".

Dena den, eta aurrekarietan aipatu bezala, Alkateak eskumena berreskuratu du 2025/1848 Alkatetza dekretuaren bitartez.

*LAUGARRENA.* Hitzarmenei dagokienean, 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. Kapituluan aurki dezakegu euren definizioa, 47.1 artikuluan hain zuzen:

*1.* ***Hitzarmenak ondorio juridikodun akordio batzuk dira, administrazio publikoek****, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko* ***subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera***".

Tolosako Udalaren eta Itelazpi S.A.-ren arteko lankidetza-hitzarmena, 40/2015 Legearen 47.2 artikuluaren a) atalean xedatutako hitzarmen-mota izango da:

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

*“2. Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek sinatzen dituzten hitzarmenak honako mota hauetariko batekoak izango dira:*

*a)* ***Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazio arteko hitzarmenak****, edo administrazio publiko diferenteei lotutako edo haien mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean sinatutakoak. Hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko baten edo lotutako edo mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo delegatuak baliatzeko*”.

Hau hala izango da, 9/2017 Legeko 6.1 artikuluan aipatzen denaren arabera, Sektore Publikoko Kontratuen Legetik kanpo geratzen direlako toki-erakundeek eta nortasun publikoko erakundeek elkarren artean egindako hitzarmenak:

“*1.* ***Lege honen eremutik kanpo*** *geratzen dira lege honetan edo arau administratibo berezietan araututa dauden kontratuen edukian sartzen ez den edukia duten* ***hitzarmenak****, honako hauek* ***elkarren artean egindakoak badira****: Estatuko Administrazio Orokorra, Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak, unibertsitate publikoak, erakunde autonomoak eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak, toki-entitateak, haien mendekoak diren nortasun juridiko publikoko erakundeak eta nortasun juridiko pribatua duten erakundeak, baldin eta, azken kasu horretan, botere adjudikatzailearen izaera badute*”.

*BOSGARRENA.* Hitzarmenak bete beharreko baldintzak 40/2015 Legearen 48. artikuluan aurreikusten dira. Kasu honetan, ondorengoak dira aipagarrienak:

*3.* ***Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu*** *beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezen lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.*

*8. Alderdiek adostasuna emanez burutzen dira hitzarmenak*”.

Lege bereko 49. artikuluan izendatzen da zein den hitzarmenek izan beharreko gutxieneko edukia:

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

| LEGEZKOTASUNA BETETZEA | BAI/EZ | OHARRA |
|---|---|---|
| a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzaren gaitasun juridikoa. | BAI* | Sara Berasategui gehitu beharko da fede publikoaren emaile bezala. |
| b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren jarduera. | BAI | |
| c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduerak. | BAI | |
| d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago. | BAI | |
| e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak. | BAI | |
| f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak. | **EZ***| Jarraipen batzordea zehaztea falta da. |
| g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. | BAI | |
| h) Hitzarmenaren indarraldia. | BAI* | Luzapenik izango ez duela jaso beharko litzateke. |

*SEIGARRENA.* 19/2013 Legearen 8.1 artikuluaren b) atalean jasotzen denari jarriki, hitzarmena argitaratu egin beharko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan:

*1. Titulu honen aplikazio-eremuan aipatzen diren subjektuek ekonomian edo aurrekontuan eragina duten administrazio-kudeaketako egintza hauei buruzko informazioa **argitaratu beharko dute, gutxienez**:*

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

*b) **Sinatutako hitzarmenen zerrenda**, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak emateko obligazioa dutenak eta adostutako obligazio ekonomikoak –baldin badaude–*”.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta jarduneko alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

LEHENA.- Tolosako Udalaren eta GFAren arteko lankidetza-hitzarmenaren aldeko txostena egitea, betiere ondorengo aldaketak txertatzeko baldintzapean:

1. Alderdi partehartzaileetan, Anduk parte hartzen duela jarri beharko da “udal-idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta”. Sararen izena azken orrian ere gehitu beharko da, sinatzaile bezala.
2. Jarraipen batzordea jasotzen duen klausula gehitu beharko da.
3. Indarraldiari dagokionez, egokia litzateke luzapenik onartuko ez dela espresuki jasotzea.

BIGARRENA.- Alkateari aipatutako lankidetza-hitzarmena onartzeko eta hura egikaritzeko ebazpen proposamena egitea.

HIRUGARRENA.- Onartutako Hitzarmenaren testua Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikuluaren b) atalean xedaturikoarekin bat.

LAUGARRENA.- Erabaki hau Kontuhartzailetza eta Diruzaintza Sailari, eta Jasangarritasuna, Ingurumena, Landa Garapena eta Trantsizio Energetikoa Azpisailari jakinaraztea

**HIRUGARRENA.-** 2025eko azaroaren 11an, kontuhartzailetza saileko kontu-hartzaile akzidentalak egindako txostenean, besteak beste, honakoa jaso zen:

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

## OINARRIZKO BETEKIZUNEN AURRETIAZKO FISKALIZAZIO ETA/EDO KONTU-HARTZE MUGATUAREN TXOSTENA

AURREKARIAK

LEHENA.- Ingurumen eta Landa eremuko teknikariak, bere 2025eko irailaren 23ko txosten teknikoan, Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetza-hitzarmena sinatzea proposatu du, tarifa sistema bateratua (mugi sistema) duen garraio publikoa sustatzeko eta mugikortasunaren arloan lankidetzan aritzeko.

BIGARRENA.- Proposatutako hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. Hitzarmenaren iraupena urtebeteko izango da.

HIRUGARRENA.- Arlo ekonomikoari dagokionean, hitzarmeneko bigarren klausulan ondorengoa adierazi da: *«Tolosako Udalari zuzendutako laguntza dirulaguntza zuzena izango da, urtean 54.733,00 euro artekoa, hitzarmen honek indarrean dirauen bitartean.»*

OINARRI JURIDIKOAK

1. 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoa, bere IV TITULUA: KONTUHARTZE-KONTROLA.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiko 32/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena.

3. 2021/7/29 datako toki erakundearen osoko bilkuraren erabakia, aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea eta espedienteetan egiaztatu beharreko baldintzak onartzen dituena.

JAKINARAZTEN DUT

Lehena.-Adierazitako araudian xedatutakoa kontuan hartuz eta espedienteko dokumentazioa ikusita, espedientearen izaerari dagozkion oinarrizko baldintzak fiskalizatu dira, eta fiskalizazioaren emaitzak txosten honen eranskinean jaso dira: baldintzak betetzat eman direnean, BAI adierazi da azkeneko zutabean; baldintzak espedienteari ez zaizkiola aplikatu behar ondorioztatu denean, EZ DAGOKIO adierazi da; eta baldintzak ez direla bete ondorioztatu denean, EZ adierazi da.
Beraz, egin den aldez aurretiazko fiskalizazioa mugatua izan da eta 2021/7/29 datako osoko bilkuraren erabakian ezarritako baldintzak baino ez dira berrikusi.

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

Bigarrena.- DIRU izeneko espedientea sortu beharko da ESKUA-n Tolosako Udalak hitzarmen honen baitan jasoko duen dirulaguntza izapidetzeko.

Hirugarrena.- Txosten honetako eranskineko 9.betekizuna betetzea faltako litzateke. Hain zuzen ere, hitzarmenean jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismo bat jasotzea faltako litzateke, hitzarmenaren betearazpenari eta sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoei aplikatzekoa.

FISKALIZAZIO TXOSTENAREN ONDORIOAK

Prozeduraren fase honetan, erreferentziako espedientea fiskalizatzen da honako emaitza honekin:

ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA

Hitzarmenean jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismo bat jasotzea faltako litzateke.

Aipatutako txertatuz gero, txosten honen emaitza ALDEKOA litzateke.

**Oharra:** oraindik sortu ez bada, DIRU espedienteari eman beharko zaio altan ESKUA-n udalak jasoko duen dirulaguntza izapidetzeko.

## AKORDIO PROPOSAMENA

**LEHENA.** Onartzea GFAaren eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmena, Mugi sistema duen garraio publikoa sustatzeko eta mugikortasun arloan lankidetzan aritzeko; ondorengo klausulen arabera:

**Lehenengoa. – Hitzarmenaren xedea**

1. Hitzarmen honen xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako udalaren arteko lankidetza esparru bat xedatzea, horrela laguntzeko Lurralde Historikoko biztanleen mugikortasunerako funtsezko eskubidea bermatzen, baita bi erakundeen helburu komunak betetzen ere, alegia, mugikortasun jasangarriaren jarraibide berri eta urgenteei erantzuten, garraio publikoa hobetzen, eta erakunde bien garraio publikoaren Tolosako kudeaketarako baliabideak optimizatzen, eta lanean jarraitzea tarifa sistema bateratu baten (MUGI sistemaren bidez) ikuspegi

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

partekatua laguntzeko eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan (GGLA) parte hartzeko ekintzetan.

2. Halaber, hitzarmen honen helburu nagusietako bat da Foru Aldundiak dirulaguntza lerro bat ezartzea, udalerrian kapilaritatea garatzeko eta hobetzeko aukerak dituen garraio publikoa —tarifa sistema bateratuaren baitan— laguntzen duten udalerri hauetarako, horrela sustatzeko hirien arteko konektagarritasuna eta irisgarritasun unibertsala, bertako herritarren hiriko desplazamenduetako hurbiltasun patroiekin, herriaren hiri garraio publikoko zerbitzuaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko jarduketak, hiriko garraio publiko horren gabeziei aurre egiten laguntzeko, baita herriak garatzen dituen hiri mugikortasun jasangarriko planak garatzearen inguruko ekintza eta programak ere.
3. Era berean, hitzarmenaren xedea da lankidetzako eta laguntzako tresnak ezartzea erakunde bien artean, Tolosako udalerriko zerbitzuaren kudeaketa partekatua hobetzeko, eta datuak ematea eta trukatzea, guztia ere lurraldeko mugikortasun jasangarriko planetako ekintzak eta programak burutzeko.
4. Hitzarmen hau sinatzeak ez du esan nahi hitzarmen hau sinatzen duten administrazioetatik ezeinek bere eskumenari uko egiten dionik edo eskumen hori lagatzen duenik, eta ez du ordeztu nahi erakunde horiek Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan duten lankidetza.

**Bigarrena.– Hiri-garraio publikorako laguntza**

1. MUGI sistemaren bitartezko lurraldeko tarifa integrazioaren baitan eta gizarte eta lurralde kohesioaren mesedetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du ekonomikoki laguntzeko MUGI sisteman sartuta dauden lurraldeko herrietako hiri garraioa, lurraldeko herritarren mugikortasunerako eskubidea bermatzeko.
2. Tolosako Udalari zuzendutako laguntza dirulaguntza zuzena izango da, urtean 54.733,00 euro artekoa, hitzarmen honek indarrean dirauen bitartean.

   Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan, ez bera bakarrik, ez beste diru laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batuta, diruz lagundutako jardueraren kostu osoa baino handiagoa.

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

3. Dirulaguntza erabiliko da herriko hiri garraio publikoko zerbitzuaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzera bideratutako jarduketetarako, hiri garraio publikoaren defizitari aurre egitera, eragiketa kudeaketara eta herrian mugikortasun jasangarriaren inguruko ekintzak eta programak burutzera Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) baitan, bereziki 11. helburuaren baitan (*«Hiri eta komunitate jasangarriak»*).

   Ildo horretan, alde biek azpimarratzen dute dirulaguntzaren guztizko zenbatekotik lehentasunezkoa izango dela hiri garraio publikoaren ibilbideak eta maiztasuna garatzeko ekintzei dagokien zatia.
4. Dirulaguntza jasotzen duen udalerriak hitzarmen honen bidez garatzen dituen hiri mugikortasun jasangarriko planak garatzeko ekintza eta programak ezingo dira berriz diruz lagundu Gipuzkoako Foru Aldundiaren beste deialdiaren batean.
5. Tolosako Udalak 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak —Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak— ezartzen dituen betebeharrak bete beharko ditu, oro har; eta, bereziki, betebehar hauek:
   a. Dirulaguntza zertarako eman den, hartarako erabiltzea.
   b. Honako jarduketa hauen mende jartzea: Gipuzkoako Foru Aldundiak egin beharreko egiaztapen-jarduketak; Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauan aurreikusitako finantza-kontroleko jarduketak; eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren legerian aurreikusitako jarduketak. Hala, diruz lagundutako jarduketa garatzeari eta egikaritzeari buruz eskatzen zaion informazio osagarri guztia eman behar du.
   c. Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskuratu izana.
   d. Jasotako funtsak itzultzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 35. artikuluan jasotako kasuetan.
   e. Eta, oro har, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 13. artikuluan adierazten diren betebehar guztiak betetzea.

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

6. . Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak ezarritako justifikazioez gain, Tolosako Udalak hiri garraio publikoaren diagnostikoari, erabilerari eta bilakaerari buruzko urteko memoria bat egingo du, hiri garraio publikoa sustatzen duela justifikatzeko
   Memoria horretan zehaztuko dira sistemaren ezaugarriak, erabilgarri dauden hiri lineen deskribapena eta linea bakoitzak lanegun, larunbat, igande eta gauetan duen erabilera, baita zabaltzeko edo berrantolatzeko aurreikusten dituzten proiektuak ere. Halaber, aztertuko dira hiri garraio publikoko sistemak herriko beste garraio sistema batzuekin interkonektatzeko duen gaitasuna.
7. Hitzarmen honetan jasotakoaz gainera, arau hauek xedatzen dutena bete beharko da: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua eta hura garatzen duen Erregelamendua (apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsia), eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.

**Hirugarrena. –Indarraldia eta iraupena**

1. Lankidetza-hitzarmen hau, sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2025ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak
2. Lankidetza-hitzarmen honek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h) artikuluaren lehenengo atalean xedatutakoaren arabera, urtebeteko indarraldia izango du.
3. Hitzarmen hau aldez aurretik suntsiarazi ahal izango da alderdi sinatzaile guztiek aho batez hala adostuz gero, hitzarmenaren xede diren jarduketak bete ondoren, edo, 40/2015 Legearen 51. artikuluko bigarren apartatuan ezarritakoaren arabera, hitzarmena suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean. Halakoetan, alderdiek zehaztuko dituzte egikaritzen ari diren jarduerak amaitzeko baldintzak.
4. Hitzarmenaren indarraldi-epea bukatzean azkenduko da hitzarmena. Era berean, hitzarmena suntsiarazi ahal izango da, alderdi sinatzaile guztiek aho batez hala erabakiz gero, hitzarmenaren xede diren jarduketak bete ondoren, edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 51. artikuluaren bigarren apartatuan ezarritakoaren arabera hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak gertatzen badira.

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

5. Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoak ez betetzeak ahalmena emango dio beste alderdiari hitzarmena suntsiaraz dadila eskatzeko. Hitzarmena suntsiaraziz gero, 40/2015 Legearen 52. artikuluan ezarritako ondorioak sortuko dira, eta, hala badagokio, alderdiek egikaritzen ari diren jarduerak amaitzeko baldintzak zehaztuko dituzte.

**Laugarrena.-** Jarraipen batzordea

Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzen direla eta hitzarmenaren inguruan plantea daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak ebazteko, Jarraipen Batzorde bat sortuko da. Batzorde hori alde bakoitzeko bi ordezkarik osatuko dute.

**BIGARRENA.-** Alkate-Lehendakariari edo, dagokionean, zinegotzi delegatuari, ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmena, Udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

**LAUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismo eta Lurralde Antolaketa sailari.

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

**4. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ARAUBIDE BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA EMATEA, TOLOSAKO IURRAMENDI EREMUKO A.20.1-2/24.1 PARTZELAKO ERAIKINETAN KOKATUTAKO 27 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA TRASTELEKUEI; I ERANSKINEAN ZEHAZTEN DIREN ZEHAZTAPEN ETA GEHIENEKO SALMENTA PREZIOEKIN.**

**I K U S I R I K**

LEHENA.- 2022ko uztailaren 28an. TOLOSASUKIA, S.L.Uk a.20,1/24.1 lursailean Araubide bereziko 27 etxebizitza tasatuen behin behineko kalifikazioa eskatzeko idazkia aurkeztu zen dokumentazioarekin batera.

BIGARRENA.- 2022ko urriaren 6an, Tolosa Sukia SLU enpresak eskritura publikoa aurkeztu du, 2018ko azaroaren 15ean Miguel Muñoa Fundazioa eta Construcciones Sukia Eraikuntzak SL merkataritza-sozietatea publiko artean (SUKIA taldea) sinatutako salerosketa-kontratu pribatua sinatu zela ziurtatzen duen dokumentua publiko bihurtzeko. Ziurtagirian ondorengoa jasotzen da:

*“Primero.- Que en fecha 15 de noviembre de 2018 la Fundación Miguel Muñoa Fundazioa y la mercantil Construcciones Sukia Eraikuntzak S.L., (GRUPO SUKIA) suscribieron un contrato privado de compraventa de la Parcela con nº registral 18/B, de Registro de la Propiedad número 1 de Tolosa, en parte incluida en el Subámbito 24.1 Iurramendi Pasealekua del Plan General de Ordenación urbana Tolosa, incluyendo también lo derechos urbanísticos que la misme genere, habiendo acordado que la elevación a Escritura Pública de la transmisión de las parcelas resultantes del Proyecto de Reparcelación que se adjudica la Fundación Miguel Muñoa Fundazioa, se efectuará a favor de Construcciones Sukia Eraikuntzak, S.L. o empresa perteneciente al GRUPO SUKIA, una vez este último sea objeto de inscripción en el Registro de la Propiedad de Tolosa.*
*Segundo: Que la Fundación Miguel Muñoa Fundazioa tiene conocimiento de que Tolosasukia S.L. (GRUPO SUKIA) ha solicitado del Ayuntamiento de Tolosa la Licencia de Construcción correspondiente a la viviendas tasadas de la Parcela a.20.1-2/24.1 resultante del Proyecto de Reparcelación que se adjudica a la Fundación Miguel Muñoa Fundazioa, otorgando su autorización al respecto.*
*TERCERO.- Que de la misma forma, la Fundación Miguel Muñoa Fundazioa tiene conocimiento de que Tolosasukia, S.L. (GRUPO SUKIA) ha solicitado del Ayuntamiento de Tolosa la calificación provisional de Viviendas Tasadas correspondientes a la Parcela a.20.1-2/24.1 resultante del Proyecto de Reparcelación que se adjudica a la Fundación Miguel Muñoa Fundazioa, otorgando asimismo autorización al respecto.”*

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

HIRUGARRENA.- 2022ko urriaren 7an, etxebizitza teknikariak behin behineko kalifikazioa ematearen aldeko txostena egin zuela.

LAUGARRENA.- 2022ko urriaren 11n, Tokiko Gobernu Batzarrak, besteak beste, honakoa erabaki zuela:

≪**LEHENA.-** Onartzea erregimen bereziko Udal etxebizitza tasatuen behin-behineko kalifikazioa ematea, espedientean dagoen kalifikazio-agirian zehazten diren zehaztapenekin eta **I eranskinean** adierazitako gehienezko salmenta prezioekin.
**BIGARRENA.-** Tolosako etxebizitza tasatuen ordenantzaren arabera, obra lizentzia eta etxebizitza tasatuen behin-behineko kalifikazioa aldi berean ematea.
**HIRUGARRENA.-** Erabakiaren berri interesdunari ematea.≫

BOSGARRENA.- 2022ko azaroaren 25ean, Tolosasukia SL sozietateak, Aitziber Suquia Irastorzak ordezkatuta, eskaera aurkeztu zuela udalean honakoa adieraziz:

≪2022ko urriaren 18an, GAOn "ORDEN de 11 de octubre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, por la que se corrigen errores en la Orden de 30 de junio de 2022, sobre determinación de los precios y rentas máximas de las viviendas de protección pública y el canon de los alojamientos dotacionales" publikatu zen. Honen arabera, aipaturiko Kalifikazioetan agertzen diren salmenta prezioak eguneratu beharra dago. Araudi honekin bat datozen prezioen taulak atxikitzen ditugu.≫

SEIGARRENA.- 2022ko azaroaren 25ean, etxebizitza teknikariak behin behineko kalifikazioa zuzentzearen aldeko txostena egin zuela.

ZAZPIGARRENA.- 2022ko azaroaren 28an, besteak beste, honakoa erabaki zela:

≪Lehenengoa.- 2022ko azaroaren 25ean TOLOSASUKIA, S.L.Uk eskatutako eskaera onartzea eta 2022ko urriaren hamaikan Gobernu Batzarrak Iurramendiko A.20.1-2/24.1 Lursailean araubide bereziko 27 etxebizitza tasatuen behin-behineko kalifikazioa zuzentzea 2022ko urriaren 11ko Aginduan arautzen diren aldaketen baitan: kalkulu sistematik etxebizitzak kanpoko espazioa izateagatik gehineko prezioaren %1eko igoera kendu eta oinarrizko prezioa bere horretan uztea.
Bigarrena.- Zuzenketaren ondoren, TOLOSASUKIA, S.L.Uk aurkeztutako prezioen taulak onartzea, araubide bereziko 27 etxebizitza tasatuen kasuan ondorengoa izango delarik:

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

| | VIVIENDA | TIPO VIVIENDA | Nº DORMITORIO | SUPERFICIE ÚTIL | Precio Vivienda (SIN IVA) | GARAJE | SUPERFICIE ÚTIL | Precio Garaje (SIN IVA) | TRASTERO | SUPERFICIE ÚTIL | Precio Trastero (SIN IVA) | PRECIO LOTE (SIN IVA) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PORTAL 1 | PLANTA BAJA A | | 3D | 83,74 | 212.786,79 | G15 | 25,15 | 16.096,50 | T10 | 11,54 | 7.365,83 | 236.269,12 |
| | PLANTA BAJA B | | 3D | 85,65 | 216.279,45 | G14 | 24,95 | 15.968,50 | T9 | 11,91 | 7.622,64 | 239.870,59 |
| | PLANTA BAJA C | | 2D | 70,00 | 185.375,80 | G13 | 30,00 | 19.200,60 | T8 | 11,87 | 7.597,04 | 212.173,44 |
| | PLANTA BAJA D | PMR | 2D | 84,14 | 213.518,24 | G39 | 40,87 | 19.200,60 | T28 | 8,79 | 5.625,78 | 238.344,62 |
| | PLANTA 1º A | | 3D | 80,35 | 206.587,77 | G16 | 25,13 | 16.083,70 | T11 | 11,4 | 7.296,23 | 229.967,70 |
| | PLANTA 1º B | | 3D | 82,76 | 210.934,74 | G17 | 24,95 | 15.968,50 | T12 | 14,03 | 8.979,46 | 235.942,72 |
| | PLANTA 1º C | | 3D | 82,76 | 210.934,74 | G18 | 27,77 | 17.773,36 | T13 | 11,21 | 7.174,62 | 235.942,72 |
| | PLANTA 1º D | | 3D | 80,35 | 206.587,77 | G19 | 27,81 | 17.798,96 | T14 | 11,17 | 7.149,02 | 231.535,75 |
| | PLANTA 2º A | | 3D | 80,35 | 206.587,77 | G10 | 24,95 | 15.968,50 | T7 | 8,97 | 5.740,98 | 228.297,25 |
| | PLANTA 2º B | | 3D | 82,76 | 210.934,74 | G21 | 27,81 | 17.798,96 | T15 | 11,26 | 7.206,63 | 236.000,32 |
| | PLANTA 2º C | | 3D | 82,76 | 210.934,74 | G23 | 24,95 | 15.968,50 | T16 | 11,2 | 7.168,22 | 234.131,46 |
| | PLANTA 2º D | | 3D | 80,35 | 206.587,77 | G51 | 38,95 | 19.200,60 | T36 | 12,29 | 7.865,65 | 233.654,22 |
| | PLANTA 3º B | | 3D | 80,04 | 206.020,89 | G46 | 27,79 | 17.786,16 | T33 | 10,33 | 6.611,41 | 230.418,45 |
| | PLANTA 3º C | | 3D | 80,04 | 206.020,89 | G47 | 27,81 | 17.798,96 | T34 | 10,28 | 6.579,41 | 230.399,25 |
| PORTAL 2 | PLANTA BAJA A | | 3D | 83,74 | 212.786,79 | G4 | 30,00 | 19.200,60 | T3 | 9,71 | 6.214,59 | 238.201,98 |
| | PLANTA BAJA B | | 3D | 85,65 | 216.279,45 | G6 | 24,93 | 15.955,70 | T4 | 9,34 | 5.977,79 | 238.212,94 |
| | PLANTA BAJA C | | 2D | 70,00 | 185.375,80 | G7 | 27,59 | 17.658,15 | T5 | 8,06 | 5.158,56 | 208.192,51 |
| | PLANTA BAJA D | PMR | 2D | 84,14 | 213.518,24 | G2 | 40,91 | 19.200,60 | T2 | 9,12 | 5.836,98 | 238.555,82 |
| | PLANTA 1º A | | 3D | 80,35 | 206.587,77 | G8 | 29,05 | 18.592,58 | T6 | 8,88 | 5.683,38 | 230.863,73 |
| | PLANTA 1º B | | 3D | 82,76 | 210.934,74 | G24 | 25,13 | 16.083,70 | T17 | 9,69 | 6.201,79 | 233.280,24 |
| | PLANTA 1º C | | 3D | 82,76 | 210.934,74 | G25 | 29,15 | 18.656,58 | T18 | 10,75 | 6.880,22 | 236.531,54 |
| | PLANTA 1º D | | 3D | 80,35 | 206.587,77 | G26 | 29,15 | 18.656,58 | T19 | 8,38 | 5.363,37 | 230.607,72 |
| | PLANTA 2º A | | 3D | 80,35 | 206.587,77 | G1 | 30,10 | 19.200,60 | T1 | 9,13 | 5.843,38 | 231.631,75 |
| | PLANTA 2º B | | 3D | 82,76 | 210.934,74 | G34 | 24,91 | 15.942,90 | T24 | 8,79 | 5.625,78 | 232.503,41 |
| | PLANTA 2º C | | 3D | 82,76 | 210.934,74 | G35 | 27,59 | 17.658,15 | T25 | 8,79 | 5.625,78 | 234.278,67 |
| | PLANTA 2º D | | 3D | 80,35 | 206.587,77 | G36 | 29,05 | 18.592,58 | T26 | 8,79 | 5.625,78 | 230.806,13 |
| | PLANTA 3º C | | 3D | 80,04 | 206.020,89 | G57 | 37,31 | 19.200,60 | T39 | 9,25 | 5.920,19 | 231.141,68 |

Hirugarrena.- Erabakiaren berri interesdunei ematea.≫

ZORTZIGARRENA.- 2025eko urriaren 27an, Tolosasukia SL sozietateak, Alfredo Pozueta Lopez de Zubiriak ordezkatuta, honakoa aurkeztu zuela:

≪TOLOSASUKIA, S.L. solicita CALIFICACION DEFINITIVA de Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Especial (VTME) para 27 viviendas, garajes y trasteros ubicados en los edificios de la parcela a.20.1-2/24.1 del ámbito Iurramendi de Tolosa.
Se adjunta:
- Instancia de solicitud con relación de viviendas, garajes y trasteros (superficies y precios).
- Documento de Fin de Obra, Libro de Actas y declaración de obra nueva y división horizontal.≫

BEDERATZIGARRENA.- 2025eko azaroaren 12an zein 18, Tolosasukia SL sozietateak, Alfredo Pozueta Lopez de Zubiriak ordezkatuta, behin betiko kalifikaziorako dokumentazio gehigarria aurkeztu zuela.

## KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

BIGARRENA.- Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dutela:

- Tolosako Udal Etxebizitza Tasatuen Udal Ordenantza Erregulatzailea (GAO ZKIA.40, 2013ko otsailaren 27a).

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

- AGINDUA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzen gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitokien kanona zehazteari buruzkoa. (EHAA 136zk, 2022ko uztailaren 14a).
- 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa. (EHAA 138zk, 2006ko uztailak 20).
- 2/2014 LEGEA, urriaren 2koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatzekoa. (EHAA 190zk, 2014ko urriaren 7a).
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, etxebizitzari buruzkoa. (EHAA, 119ZK, 2015eko ekainaren 26a).
- 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (EHAA 59zk, 2008ko martxoak 28).

HIRUGARRENA.- Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoko departamentuko arkitektoak 2022H3160003 espedientearen baitan egindako bere txostenean (IE25_087) udal etxebizitza tasatuei buruz, besteak beste, honakoa adierazi duela:

≪ Udal-tasatuei dagokien dokumentazioa aurkeztu dute eta ontzat eman da:

| | Dokumentu eta baldintzak | |
|---|---|---|
| 1 | Behin-betiko kalifikazio eskaera: Honakoak identifikatuz:<br>- Etxebizitzen zerrenda<br>- Euren araubidea (orokorra edo berezia)<br>- Azalerak eta eranskinak | BAI |
| 2 | Obra zuzendaritza eta sustatzaileak sinatutako ziurtagiria honakoa ziurtatuz:<br>1. egindako lanak eta aurkeztutako obra amaierako dokumentuak honako hauek erabat betez egin direla:<br>- Udal tasatuen ordenantza<br>- Udal tasatuen behin-behineko kalifikazioan zehaztutakoa (adierazitako garajeen salbuespena jar dezakezue)<br>- Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura babesteko udal ordenantza<br>- Obra baimeneko ezaugarri eta baldintzak<br>2. Eraiketaren obrak bukatuta daudela, urbanizazioren eta zerbitzurenak erabiltzeko prest daudela eta obra guztiek, azkeneko egiteratzeko proiektuan agertzen direla eta udal tasatu diren heinean, modu honetako babes ofizialeko etxebizitzei dagozkien taxuketa eta kalitatezko arauak betetzen dituztela. | BAI |
| 5.1 | Obra-amaieraren jatorrizko egiaztagiria, dagokien Elkargoek onetsia | BAI (Hala ere, obra amaieran ere eskatu da) |
| 5.2 | Jabetza-erregistroan inskribatuta dagoen Obra berriaren deklarazio-eskrituraren kopia. | BAI (Hala ere, obra amaieran ere eskatu da) |
| 5.3 | Eraikinak obra bukatzen denetik eta urtebeteko epean sute-asegurua duela ziurtatzen duen egiaztagiria. | Obra amaieran eskatu da |

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

| | | |
|---|---|---|
| 5.4 | Udal tasatuak diren etxebizitza hauen aginduen eta ikustaldien liburua. | BAI (Hala ere, obra amaieran ere eskatu da) |
| 5.5 | Arkitektoen Elkargo Ofizialak onetsitako egiteratzeko proiektua. | Obra amaieran eskatu da |
| 5.6 | Eraiketaren aurrealde bakoitzeko argazki bat. | Obra amaieran eskatu da |
| 5.7 | Kalitatezko kontrolaren egiaztagiria. | Obra amaieran eskatu da |
| 5.8 | Eraginkortasun Energetikoko Ziurtagiria. | Obra amaieran eskatu da |

≫

Eta, beraz, besteak beste, honakoa proposatu duela:

≪24.1. Iurramendi pasealekua azpi-esparruko a.20.1-2/24.1 lursailean 40 etxebizitza udal-tasatu, 59 garaje eta 41 trastelekuen inguruko obra amaiera ontzat eman eta LEHEN ERABILERA BAIMENA ematea. Beti ere, udal tasatu izateko behin betiko kalifikazioa ematea ere aldi berean edo lehenago onartua egotekotan.≫

LAUGARRENA.- Aurrekoa ikusita adierazi daitekeela TOLOSASUKIA, SL sozietateak aurkeztutako dokumentazioak betetzen dituela Tolosako Udal Etxebizitza Tasatuen Udal Ordenantzak eta aipatu den gainontzeko arautegi erregulatzaileak jasotakoa, eta eskabidean adierazitako prezioak bat datozela indarrean dagoen legezko gehieneko prezioekin. Ondorioz, eman daitekeela Tolosako Iurramendi eremuko a.20.1-2/24.1 partzelako eraikinetan kokatutako erregimen bereziko 27 etxebizitza, garaje eta trastelekuei udal-etxebizitza tasatuen behin betiko kalifikazioa.

BOSGARRENA.- Udal etxebizitza tasatuen udal ordenantzaren 10. artikuluak ezartzen duenez, bai araubide orokorreko udal etxebizitza tasatuaren kalifikazioa, bai erregimen berezikoarena, sustatzaileak eskatu eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bidez ezarriko dela.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta jarduneko alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**LEHENA.-** Araubide bereziko udal etxebizitza tasatuen BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA EMATEA Tolosako Iurramendi eremuko a.20.1-2/24.1 partzelako eraikinetan kokatutako 27 etxebizitza, garaje eta trastelekuei; I eranskinean zehazten diren zehaztapen eta gehieneko salmenta prezioekin.

**BIGARRENA.-** Interesdunari erabakiaren berri ematea.

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

5. **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ARAUBIDE OROKORREKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA EMATEA TOLOSAKO IURRAMENDI EREMUKO A.20.1-2/24.1 PARTZELAKO ERAIKINETAN KOKATUTAKO 13 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA TRASTELEKUEI; I ERANSKINEAN ZEHAZTEN DIREN ZEHAZTAPEN ETA GEHIENEKO SALMENTA PREZIOEKIN.**

**I K U S I R I K**

LEHENA.- 2022ko uztailaren 28an. TOLOSASUKIA, S.L.Uk a.20,1/24.1 Iursailean Araubide orokorreko 13 etxebizitza tasatuen behin behineko kalifikazioa eskatzeko idazkia aurkeztu zen dokumentazioarekin batera.

BIGARRENA.- 2022ko urriaren 6an, Tolosa Sukia SLU enpresak eskritura publikoa aurkeztu du, 2018ko azaroaren 15ean Miguel Muñoa Fundazioa eta Construcciones Sukia Eraikuntzak SL merkataritza-sozietatea publiko artean (SUKIA taldea) sinatutako salerosketa-kontratu pribatua sinatu zela ziurtatzen duen dokumentua publiko bihurtzeko. Ziurtagirian ondorengoa jasotzen da:

*"Primero.- Que en fecha 15 de noviembre de 2018 la Fundación Miguel Muñoa Fundazioa y la mercantil Construcciones Sukia Eraikuntzak S.L., (GRUPO SUKIA) suscribieron un contrato privado de compraventa de la Parcela con nº registral 18/B, de Registro de la Propiedad número 1 de Tolosa, en parte incluida en el Subámbito 24.1 Iurramendi Pasealekua del Plan General de Ordenación urbana Tolosa, incluyendo también lo derechos urbanísticos que la misme genere, habiendo acordado que la elevación a Escritura Pública de la transmisión de las parcelas resultantes del Proyecto de Reparcelación que se adjudica la Fundación Miguel Muñoa Fundazioa, se efectuará a favor de Construcciones Sukia Eraikuntzak, S.L. o empresa perteneciente al GRUPO SUKIA, una vez este último sea objeto de inscripción en el Registro de la Propiedad de Tolosa.*
*Segundo: Que la Fundación Miguel Muñoa Fundazioa tiene conocimiento de que Tolosasukia S.L. (GRUPO SUKIA) ha solicitado del Ayuntamiento de Tolosa la Licencia de Construcción correspondiente a la viviendas tasadas de la Parcela a.20.1-2/24.1 resultante del Proyecto de Reparcelación que se adjudica a la Fundación Miguel Muñoa Fundazioa, otorgando su autorización al respecto.*
*TERCERO.- Que de la misma forma, la Fundación Miguel Muñoa Fundazioa tiene conocimiento de que Tolosasukia, S.L. (GRUPO SUKIA) ha solicitado del Ayuntamiento de Tolosa la calificación provisional de Viviendas Tasadas correspondientes a la Parcela a.20.1-2/24.1 resultante del Proyecto de Reparcelación que se adjudica a la Fundación Miguel Muñoa Fundazioa, otorgando asimismo autorización al respecto."*

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

HIRUGARRENA.- 2022ko urriaren 7an, etxebizitza teknikariak behin behineko kalifikazioa ematearen aldeko txostena egin zuela.

LAUGARRENA.- 2022ko urriaren 11n, Tokiko Gobernu Batzarrak, besteak beste, honakoa erabaki zuela:

≪**LEHENA.-** Onartzea araubide orokorreko Udal etxebizitza tasatuen behin-behineko kalifikazioa ematea, espedientean dagoen kalifikazio-agirian zehazten diren zehaztapenekin eta **I eranskinean** adierazitako gehienezko salmenta prezioekin.
**BIGARRENA.-** Tolosako etxebizitza tasatuen ordenantzaren arabera, obra lizentzia eta etxebizitza tasatuen behin-behineko kalifikazioa aldi berean ematea.
**HIRUGARRENA.-** Erabakiaren berri interesdunari ematea.≫

BOSGARRENA.- 2022ko azaroaren 25ean, Tolosasukia SL sozietateak, Aitziber Suquia Irastorzak ordezkatuta, eskaera aurkeztu zuela udalean honakoa adieraziz:

≪2022ko urriaren 18an, GAOn "ORDEN de 11 de octubre de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, por la que se corrigen errores en la Orden de 30 de junio de 2022, sobre determinación de los precios y rentas máximas de las viviendas de protección pública y el canon de los alojamientos dotacionales" publikatu zen. Honen arabera, aipaturiko Kalifikazioetan agertzen diren salmenta prezioak eguneratu beharra dago. Araudi honekin bat datozen prezioen taulak atxikitzen ditugu.≫

SEIGARRENA.- 2022ko azaroaren 25ean, etxebizitza teknikariak behin behineko kalifikazioa zuzentzearen aldeko txostena egin zuela.

ZAZPIGARRENA.- 2022ko azaroaren 28an, 2022/2799 Zinegotzi Delegatuaren Dekretuz, besteak beste, honakoa erabaki zela:

≪Lehenengoa.- 2022ko azaroaren 25ean TOLOSASUKIA, S.L.Uk eskatutako eskaera onartzea eta 2022ko urriaren hamaikan Gobernu Batzarrak Iurramendiko A.20.1-2/24.1 Lursailean araubide orokorreko 13 etxebizitza tasatuen behin-behineko kalifikazioa zuzentzea 2022ko urriaren 11ko Aginduan arautzen diren aldaketen baitan: kalkulu sistematik etxebizitzak kanpoko espazioa izateagatik gehineko prezioaren %1eko igoera kendu eta oinarrizko prezioa bere horretan uztea.
Bigarrena.- Zuzenketaren ondoren, TOLOSASUKIA, S.L.Uk aurkeztutako prezioen taulak onartzea, araubide orokorreko 13 etxebizitza tasatuen kasuan ondorengoa izango delarik:

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

| | VIVIENDA | Nº DORMITORIO | SUPERFICIE ÚTIL | Precio Vivienda (SIN IVA) | GARAJE | SUPERFICIE ÚTIL | Precio Garaje (SIN IVA) | TRASTERO | SUPERFICIE ÚTIL | Precio Trastero (SIN IVA) | PRECIO LOTE (SIN IVA) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PORTAL 1 | PLANTA 3ª A | 3D | **80,35** | 326.909,63 | **G45** | 24,95 | 27.073,74 | **T32** | 10,34 | 11.220,14 | **365.203,71** |
| | PLANTA 3ª D | 3D | **80,35** | 326.909,63 | **G49** | 27,81 | 30.177,19 | **T35** | 10,39 | 11.274,40 | **368.361,41** |
| | PLANTA ÁTICO A | 2D | **64,96** | 275.113,52 | **G43** | 25,28 | 27.431,83 | **T31** | 11,61 | 12.598,24 | **315.143,60** |
| | PLANTA ÁTICO B | 3D | **77,97** | 320.022,94 | **G42** | 25,09 | 27.225,86 | **T30** | 11,92 | 12.934,63 | **360.183,23** |
| | PLANTA ÁTICO C | 3D | **77,97** | 320.022,94 | **G41** | 29,32 | 31.815,72 | **T29** | 11,89 | 12.902,08 | **364.740,74** |
| | PLANTA ÁTICO D | 2D | **64,98** | 275.185,86 | **G38** | 26,49 | 28.744,83 | **T27** | 8,79 | 9.538,20 | **313.468,89** |
| PORTAL 2 | PLANTA 3ª A | 3D | **80,35** | 326.909,63 | **G54** | 24,29 | 26.357,56 | **T37** | 9,25 | 10.037,36 | **363.304,75** |
| | PLANTA 3ª B | 3D | **80,04** | 325.012,80 | **G56** | 26,88 | 29.168,03 | **T38** | 9,25 | 10.037,36 | **365.218,19** |
| | PLANTA 3ª D | 3D | **80,35** | 326.909,63 | **G58** | 25,03 | 27.160,55 | **T40** | 9,25 | 10.037,36 | **364.107,74** |
| | PLANTA ÁTICO A | 2D | **64,96** | 275.113,52 | **G29** | 26,49 | 28.744,83 | **T21** | 8,13 | 8.822,03 | **312.680,37** |
| | PLANTA ÁTICO B | 3D | **77,97** | 320.022,94 | **G27** | 43,04 | 32.553,60 | **T20** | 8,12 | 8.811,17 | **361.387,71** |
| | PLANTA ÁTICO C | 3D | **77,97** | 320.022,94 | **G30** | 40,87 | 32.553,60 | **T22** | 8,1 | 8.789,47 | **361.366,01** |
| | PLANTA ÁTICO D | 2D | **64,98** | 275.185,86 | **G31** | 28,45 | 30.871,66 | **T23** | 8,8 | 9.549,08 | **315.606,58** |

Hirugarrena.- Erabakiaren berri interesdunei ematea.≫

ZORTZIGARRENA.- 2025eko urriaren 27an, Tolosasukia SL sozietateak, Alfredo Pozueta Lopez de Zubiriak ordezkatuta, honakoa aurkeztu zuela:

≪TOLOSASUKIA, S.L. solicita CALIFICACION DEFINITIVA de Viviendas Tasadas Municipales de Régimen General (VTMG) para 13 viviendas, garajes y trasteros ubicados en los edificios de la parcela a.20.1-2/24.1 del ámbito Iurramendi de Tolosa.
Se adjunta:
- Instancia de solicitud con relación de viviendas, garajes y trasteros (superficies y precios).
- Documento de Fin de Obra, Libro de Actas y declaración de obra nueva y división horizontal.≫

BEDERATZIGARRENA.- 2025eko azaroaren 12an zein 18, Tolosasukia SL sozietateak, Alfredo Pozueta Lopez de Zubiriak ordezkatuta, behin betiko kalifikaziorako dokumentazio gehigarria aurkeztu zuela.

**K O N T U A N   H A R T U R I K**

LEHENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

BIGARRENA.- Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dutela:

- Tolosako Udal Etxebizitza Tasatuen Udal Ordenantza Erregulatzailea (GAO ZKIA.40, 2013ko otsailaren 27a).
- AGINDUA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzen gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitokien kanona zehazteari buruzkoa. (EHAA 136zk, 2022ko uztailaren 14a).
- 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa. (EHAA 138zk, 2006ko uztailak 20).
- 2/2014 LEGEA, urriaren 2koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatzekoa. (EHAA 190zk, 2014ko urriaren 7a).

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, etxebizitzari buruzkoa. (EHAA, 119ZK, 2015eko ekainaren 26a).
- 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (EHAA 59zk, 2008ko martxoak 28).

HIRUGARRENA.- Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoko departamentuko arkitektoak 2022H3160003 espedienteraren baitan egindako bere txostenean (IE25_087) udal etxebizitza tasatuei buruz, besteak beste, honakoa adierazi duela:

≪ Udal-tasatuei dagokien dokumentazioa aurkeztu dute eta <u>ontzat eman da</u>:

| | Dokumentu eta baldintzak | |
|---|---|---|
| 1 | Behin-betiko kalifikazio eskaera: Honakoak identifikatuz:<br>- Etxebizitzen zerrenda<br>- Euren araubidea (orokorra edo berezia)<br>- Azalerak eta eranskinak | BAI |
| 2 | Obra zuzendaritza eta sustatzaileak sinatutako <u>ziurtagiria honakoa ziurtatuz:</u><br>1. egindako lanak eta aurkeztutako obra amaierako dokumentuak honako hauek erabat betez egin direla:<br>- Udal tasatuen ordenantza<br>- Udal tasatuen behin-behineko kalifikazioan zehaztutakoa (adierazitako garajeen salbuespena jar dezakezue)<br>- Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura babesteko udal ordenantza<br>- Obra baimeneko ezaugarri eta baldintzak<br>2. Eraiketaren obrak bukatuta daudela, urbanizazioren eta zerbitzurenak erabiltzeko prest daudela eta obra guztiek, azkeneko egiteratzeko proiektuan agertzen direla eta udal tasatu diren heinean, modu honetako babes ofizialeko etxebizitzei dagozkien taxuketa eta kalitatezko arauak betetzen dituztela. | BAI |
| 5.1 | Obra-amaieraren jatorrizko egiaztagiria, dagokien Elkargoek onetsia | BAI (Hala ere, obra amaieran ere eskatu da) |
| 5.2 | Jabetza-erregistroan inskribatuta dagoen Obra berriaren deklarazio-eskrituraren kopia. | BAI (Hala ere, obra amaieran ere eskatu da) |
| 5.3 | Eraikinak obra bukatzen denetik eta urtebeteko epean sute-asegurua duela ziurtatzen duen egiaztagiria. | Obra amaieran eskatu da |
| 5.4 | Udal tasatuak diren etxebizitza hauen aginduen eta ikustaldien liburua. | BAI (Hala ere, obra amaieran ere eskatu da) |
| 5.5 | Arkitektoen Elkargo Ofizialak onetsitako egiteratzeko proiektua. | Obra amaieran eskatu da |
| 5.6 | Eraiketaren aurrealde bakoitzeko argazki bat. | Obra amaieran eskatu da |
| 5.7 | Kalitatezko kontrolaren egiaztagiria. | Obra amaieran eskatu da |

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

| | Dokumentu eta baldintzak | |
|---|---|---|
| 5.8 | Eraginkortasun Energetikoko Ziurtagiria. | Obra amaieran eskatu da |

≫

Eta, beraz, besteak beste, honakoa proposatu duela:

≪24.1. Iurramendi pasealekua azpi-esparruko a.20.1-2/24.1 lursailean 40 etxebizitza udal-tasatu, 59 garaje eta 41 trastelekuen inguruko obra amaiera ontzat eman eta LEHEN ERABILERA BAIMENA ematea. Beti ere, udal tasatu izateko behin betiko kalifikazioa ematea ere aldi berean edo lehenago onartua egotekotan.≫

LAUGARRENA.- Aurrekoa ikusita adierazi daitekeela TOLOSASUKIA, SL sozietateak aurkeztutako dokumentazioak betetzen dituela Tolosako Udal Etxebizitza Tasatuen Udal Ordenantzak eta aipatu den gainontzeko arautegi erregulatzaileak jasotakoa, eta eskabidean adierazitako prezioak bat datozela indarrean dagoen legezko gehieneko prezioekin. Ondorioz, eman daitekeela Tolosako Iurramendi eremuko a.20.1-2/24.1 partzelako eraikinetan kokatutako araubide orokorreko 13 etxebizitza, garaje eta trastelekuei udal-etxebizitza tasatuen behin betiko kalifikazioa.

BOSGARRENA.- Udal etxebizitza tasatuen udal ordenantzaren 10. artikuluak ezartzen duenez, bai araubide orokorreko udal etxebizitza tasatuaren kalifikazioa, bai erregimen berezikoarena, sustatzaileak eskatu eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bidez ezarriko dela.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta jarduneko alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**LEHENA.-** Araubide orokorreko udal etxebizitza tasatuen BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA EMATEA Tolosako Iurramendi eremuko a.20.1-2/24.1 partzelako eraikinetan kokatutako 13 etxebizitza, garaje eta trastelekuei; I eranskinean zehazten diren zehaztapen eta gehieneko salmenta prezioekin.

**BIGARRENA.-** Interesdunari erabakiaren berri ematea.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 09:23ean.**

**JARDUNEKO ALKATEA** **UDAL IDAZKARIA**

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

3. PUNTUKO ERANSKINA 2025IGBA0037

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, TARIFA SISTEMA BATERATUA (MUGI SISTEMA) DUEN GARRAIO PUBLIKOA SUSTATZEKO ETA MUGIKORTASUNAREN ARLOAN LANKIDETZAN ARITZEKO**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN INSTITUCIONAL ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA Y EL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA PARA EL FOMENTO DEL TRANSPORTE PÚBLICO CON SISTEMA TARIFARIO UNIFICADO (SISTEMA MUGI) Y COOPERACIÓN EN MATERIA DE MOVILIDAD**

Donostian, sinadura elektronikoaren datan

En San Sebastián, a fecha de firma electrónica

**ELKARTU DIRA**

**REUNIDOS**

Alde batetik, AZAHARA DOMÍNGUEZ URTIZBEREA andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako foru diputatua den aldetik, Foru Aldundiaren legezko ordezkari gisa.

De una parte, DOÑA AZAHARA DOMÍNGUEZ URTIZBEREA, en su condición de Diputada Foral de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en representación legal de la misma.

Eta, bestetik, ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGI JAUNA, Tolosako Udaleko alkatea, Udalaren legezko ordezkari gisa, udal-idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

Y de la otra parte, DON ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGI Alcalde del Ayuntamiento de Tolosa, en representación legal del mismo, asistido por la Secretaria Municipal, Sara Berasategui Fuertes.

Alderdiek beharrezko lege-ahalmena aitortzen diote elkarri, esku hartzen duten ordezkaritzan LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzeko, eta, horretarako,

Los intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN y a tal efecto,

**AZALTZEN DUTE**

**EXPONEN**

**I.-** Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumena du bere lurraldearen barruko mugikortasunaren eta errepideko garraiobide mekanikoen arloan, honako arau hauetan

**I.-** La Diputación Foral de Gipuzkoa es competente en materia de movilidad y transportes mecánicos por ca-

ESKU56a9e662-1f93-4123-bdc9-88aeab98972c

xedatutakoaren arabera: Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluan; Autonomia Erkidego Osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 10. artikuluan; garrraio-arloko eskumenak eskuordetzeari buruzko uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoan; eta martxoaren 5eko 46/1985 Dekretuan eta martxoaren 5eko 30/1985 Foru Dekretuan —biak lurreko garraioen arloan Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen zerbitzuak Gipuzkoako Lurralde Historikoari eskualdatzeari buruzkoak—.

